



@@@BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA, 2021ko urriaren 21ekoa, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita unibertsitatez kanpoko heziketa – prestakuntza-zikloak alde batera utzita – ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei egindako deialdia, hezkuntza bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten 2021-2022 ikasturtean. Berrikuntza-proiektu integralen modalitatea@@@

Hezkuntzako sailburuaren 2021eko ekainaren 30eko Aginduak (uztailaren 22ko EHAA) zehaztu zuen zein diru-laguntza jasoko zuten itunpeko ikastetxe pribatuek eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoek, unibertsitatez kanpoko heziketa – prestakuntza-zikloak alde batera utzita – ematen dutenek, 2021-2022 ikasturtean hezkuntza bikaintasuneranzko prestakuntza proiektuak eginez gero.

Eskaerak aurkezteko epea amaiturik, proiektu guztiak aztertu dira, 2021eko ekainaren 30eko Aginduan xedatutakoaren arabera, eta balorazio-batzordeak proposatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- I. eranskinean zerrendatutako ikastetxe-eskatzailerei zehaztutako diru-hornidurak esleitzea, 2021-2022 ikasturtean beren Berrikuntza- proiektu Integralak egin ditzaten. Diru-laguntzak bi alditan ordainduko dira; lehenengoa, 2021ko ekitaldia bukatu baino lehen.

Bigarrena.- Aipatutako Ikastetxe horiek deialdiko 17. artikuluan ezarritako betebeharrak beteko dituzte eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin eta unibertsitatekin lankidetzan arituko dira, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetako praktiketako ikasleak onartuz, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra ikasten diharduten praktiketako ikasleak ere, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza praktiketan integra daitezen laguntze aldera.

Hirugarrena.- Onartu ez diren eskaeren zerrenda argitaratzea (II. eranskina), ukatzeko arrazoiak adieraziz. Haien kodeak III. eranskinean daude deskribatuta.

Laugarrena.- Ikastetxe interesdunek hamar eguneko epea izango dute behi-behineko ebazpen honen aurka egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 21ean
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren
zuzendaria.
AMAIA AGIRRE PINEDO





I. ERANSKINA

**2021-2022 ikasturterako Berrikuntza-proiektu
integralak dauzkaten ikastetxeentzako diru-laguntzak**

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Proiektua	Diru-laguntza
Araba	010188	CPEIPS Olabide Ikastola HLBHIP	Garapen jasangarriko helburuen inplementatzea Olabide Ikastolan	3.000,00
Araba	010228	CPEIPS Presentación de María HLBHIP	Código felicidad: Entrenar la resiliencia a través de la inteligencia emocional en tiempos de COVID (2020-2023)	3.000,00
Araba	010254	CPES Apostólico San Jose BHIP	Piensa, crea, convive: ¿Desarrollo de habilidades de pensamiento y convivencia?	3.000,00
Gipuzkoa	012328	CPEIPS Elgoibar Ikastola HLBHIP	Euskararen erabileran eta kalitatean eragiteko plan orokorra	3.000,00
Gipuzkoa	012430	CPEIPS Egiluze Hijas de La Cruz Hondarribia HLBHIP	Goazen kanpora	3.000,00
Gipuzkoa	012444	CPEIPS San Vicente de Paul HLBHIP	Ikas komunitatearen bidean	2.000,00
Gipuzkoa	012540	CPEIP San José (Escuela Asilo) HLBHIP	Elaboración del proyecto curricular de centro con la metodología del aprendizaje basado en proyectos	2.000,00
Bizkaia	014527	CPEIPS Seber Altube Ikastola HLBHIP	Guzu ... Antolaketa integrala	2.000,00
Bizkaia	014543	CPEIPS Zubi-Zahar Ikastola HLBHIP	Bikaintasunerantz. Hobekuntza pedagogiko iraunkorra	2.000,00
Bizkaia	014550	CPEIPS Bihotz Gaztea Ikastola HLBHIP	Ikaslea ikastolako erdigunean	3.000,00
Bizkaia	014698	CPEIPS San Pedro Apóstol HLBHIP	Proyecto de formación hacia la excelencia educativa: 3Di	2.000,00
Bizkaia	014737	CPEIPS San Pelayo HLBHIP	Proyecto integral de mejora de las competencias de aprender a aprender y para la autonomía e iniciativa personal	1.500,00
Bizkaia	014767	CPEIPS B.V. María HLBHIP	Aprender a convivir y aprender a ser en un mundo digital (2º año)	3.000,00
Bizkaia	014769	CPEIPS Ntra. Sra. De Las Mercedes HLBHIP	Innovación 43,19	3.000,00
Bizkaia	014777	CPEIPS Fundación Escuelas Ventades HLBHIP	La comprensión y expresión, a través de las emociones	2.000,00



II. ERANSKINA

Onartu gabeko Berrikuntza-proiektu integralak

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Proiektua	Baztertze arrazoia
Araba	010178	CPEIPS San Bizente Ikastola HLBHIP	Ikaskuntza kooperatiboa. HPI hobekuntza pedagogiko iraunkorra	2.kodea
Araba	010233	CPEIPS San Viator HLBHIP	Proiektuetan oinarritutako irakaskuntza. Jarraipena	2.kodea
Gipuzkoa	012341	CPEIPS San Benito Ikastola HLBHIP	Jolas eremu naturala	2.kodea
Gipuzkoa	012350	CPEIPS Orio Ikastola HLBHIP	Bikaintasuna helburu, berrikuntza metodologikoak ikastetxean ezartzeko, prototipoak egiteko prestakuntza proiektua	2.kodea
Gipuzkoa	012382	CPEIPS Jakintza Ikastola HLBHIP	Irabazi Arte!	2.kodea
Gipuzkoa	012471	CPEIPS Egiluze Hijas de la Cruz Erreterria HLBHIP	Natura piztu!	1.kodea
Bizkaia	014561	CPEIPS Lauro Ikastola HLBHIP	Lauro Ikastola gizarterako pentsalari eta arazo kudeatzaileraginkorrak prestatzen III	2.kodea
Bizkaia	014775	CPIFP Lea-Artibai LHIPI	Pentsamendu sortailearen aplikazio praktikoa jasangarritasunean	2.kodea
Bizkaia	014817	CPEIPS Amor Misericordioso HLBHIP	e-educación post-covid (continuación)	2.kodea
Bizkaia	015838	CPES Lea-Artibai Batxilergoa BHIP	Pentsamendu sortailearen aplikazio praktikoa jasangarritasunean	1.kodea



III. ERANSKINA

Ukapenaren zergatiei dagozkien kodeen deskribapena

1 kodea: Eskaera ez da behar bezala eta epean aurkeztu egoitza elektronikoan, deialdiak ezartzen duen bezala, (10.2 artikulua).

2 kodea:. Aurkeztutako berrikuntza-proiektu integralak ez du betetzen deialdi-aginduaren 2. Artikuluan ezarritako bi baldintzetako bat.